

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

294 - 2021eko iraila



ARALARREN
IRAGANARI, ORAINARI
ETA GEROARI BEGIRA



POSTONTZIA

- ✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?
- ✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteren bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: mailope@labrit.net / 638 652 339.



**aseguru
gintza
XXI**

**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna
babesteko modu bakarra
behar bezela aseguratua
egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**Construcciones
Gañarbe**

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri

📧 construccionesganarbe@gmail.com

☎ 616 457 540

☎ 636 827 846

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzitza eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Maillope Kultur Elkartea.

L.G.: NA 719/93

Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/maillopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:

Labrit, Lekunberriko Udala, Larraungo Udala, Aranzadi Zientzia Elkartea, Mainer Agirrebarrena, Koro Barea, Agurtzane Altuna.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - maillope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Araitz Amatria.

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

LABRIT
MULTIMEDIA

04



KUXKUXEAN Abuztuko eta iraileko zorion agurrak.

08



ELKARRIZKETA



Iñaki Martiarena Otxotorena, 'Mattin'.

12



IZAN GAZTE Hilekoa: beldurrak, kezak eta zalantzak.

14



BATZARRE Indarkeria matxista.

16



ERREPORTAJEA



'Aralar, Kirikuren begirada' erakusketa.

20



KIROLA Skadi arku-tiro kluba.

22



ERREPORTAJETXOA Udako festak.

25



KULTURA Azokak eta Azken Muga jaialdia.

28



PLAZATIK PLAZARA Larraungo agenda digitala.

31



AGENDA





Eider Azpiroz Arrizurieta


Abuztuaren 2an, 7 urte.

Zorionak, printzesa! Ongi pasa dezazula zure urtebetetze egunean! Izugarri maite zaituen zure familiaren partez!

Aratz Etxarri Zubeldia

Irailaren 23an, 5 urte.

Zorionak eta urte askoan!! Muxu handi bat etxeko guztien partetik.



Inaxio Arguiñarena Ochotorena

Abuztuaren 9an, 4 urte.

Zorionak, pottoko!!! Ongi ospatu zure eguna eta ea opari polittak jasotzen dittuzun!! Muxu asko etxekoen partez!



Ugaitz Zubillaga Sasiain

Irailaren 21ean, 13 urte.

Ongi-ongi pasa zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat, etxeko guztien partez!

Mailope aldikaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



PLAZAOLAKO ZATI BAT ITXITA

Abuztuaren 16tik, Plazaola naturbideko tarte bat itxita dago, eta hala egongo da bi hilabetez, printzipioz. Lekunberriko zabortegei zaharren inguruan obrak egingo dituztenez, ezingo da handik pasatzen den bidea zeharkatu. Leitza aldera Natur Bidetik joan nahi ezker, Bartolo tunelaren parean hartuko beharko da bidea.



BELAR BERRIA FUTBOL ZELAIAN

Hondatutako belarra aldatu dute Lekunberriko futbol zelaian. Abuztuaren hondarrean inauguratu zuten, eta ekitaldi txiki bat egin zuten Beti Kozkor klubeko 3. mailako taldearekin, beste kategoria batzuetako ordezkariekin, Plazaola kirolguneko ordezkariekin eta beste hainbat kolaboratzaileekin.



IKUS-ENTZUNEZKO EKIPAMENDU BERRIA

Larraungo Udalak herrien zerbitzura egongo den ikus-entzunezko ekipamendu berria erosi du: proiektorea, pantaila eta soinu ekipamendu eramangarria. Horri esker, herrietan udako zinema saioak eta bestelako ekitaldiak antolatzeke aukera izango da. Ekipamendua erabili nahi duenak mezu bat bidali beharko du euskarakultura@larraun.eus helbidera.

► Tere Mariñelarena (Uztegi)



Inguru hau da paradisua denok ados gaude honetan, natura eta paraje ederrak zorteko gara benetan.

Garai batean bizi gogorra familia erraldoietan, gaur egun berriz dena eskura etxe asko hutsik herrietan. 'Domingeroen' paradisua kanpokoentzat txaletak basapiztiak etxe ingurura sasiak nonahi gainezka.

Gaur egun dugu jainko berria hauxe baita Internet-a, makinan menpe ahaztu ote dugu guztiok behar du(gu)n fereka. Geldi gaitezen, hausnarketa egin hau ez baita ez txantxetan nondik gatozen, nora ote goaz gizakiok mundu honetan.

Arnasa hartu, beittu ingurura non gaude, norekin eta zaindu dezagun itsutu gabe garrantziduna benetan.

EUSKADI, AUZOLANA, BIEN COMÚN

Azken hilabete hauetan, euskal hedabide batzuetan, behintzat, propaganda edota iragarki bat agertzen ari da, honako haxe jartzen duena, alegia, <On egin! Bonoa>, eta, Eusko Jaurlaritza, gehi HAZI Landa, itsasertz eta elikagaien sustapenaren laguntza eta babesarekin ikusten da. Leloa, jakina, nola ez, EUSKADI, AUZOLANA, BIEN COMÚN.

Ohartzen bagara, propaganda horretan, gako-hitza, eta, ondorioz, garrantzitsuena, bonua da, baina errepara diezaiogun ongi hitz hori zein modutan agertzen den idatzita, hau da, euskal moduan ala erdal moduan. Kasualitatea!, ez da hala? Propaganda guztietan eta beti, 'Bonoa' hitza ageri da. Baina, bueno, aurrera joan baino lehen, badaezpada ere, jo dezagun Euskaltzaindiaren Hiztegia eta ikus dezagun zer jartzen digun, idazten badugu 'bono' hitza: iz. (Oharra: Euskaltzaindiak, bono-k euskara idatzian izan duen erabilera kontuan harturik, forma hori ez erabiltzea gomendatzen du; ik. Bonu).

Hau ikusita, munduko euskaldun xumeok zer pentsatu beharko ote dugu, alegia, HAZI-k eta Eusko Jaurlaritzak arinkeriaz eta utzikieriaz jokatu dutela euskarekiko, denbora luze honetan guztian? Espainiera goxoago eta etxeago gertatzen zaiela? Axolagabeak direla eta ez dutela hiztegian kontsultatzeke eragozpenik hartu nahi? Orojaketat jotzen dutela beren burua? Euskaltzaindiaren aholkuei paso egiten dietela? Erdarak, hau da, gaztelania, frantsesa, ingelesa eta abar, normalizatu nahi dituztela, euskara bera baino gehiago? Espainiera galtzeko arriskuan ikusi eta sustatzeko premia sumatuko ote zuten? Gu, euskaldunok, kasu honetan, euskaldunegizat hartu eta oraindik gehiago espainiaru nahiko gaituzte? Euskara, agian, egoera onegian nabaritu zuten, galtzeko batere arriskurik gabe, eta, horrexegatik, apika, pixka bat balaztatu nahiko ote dute?; laguntza eta arreta premiarik gabekotzat joko ote zuten?

Zaila da asmatzen! Jakin nahi nuke zein izan ote den sakoneko eta azken arrazoia, horrelako narraskeria itsusia, horren denbora luzean erakusteko jendearen aurrean!

Bukatzeke, ohar txiki bat: azken urteotan guztietan, Eusko Jaurlaritzak oso gustuko dauka, antza denez, 'auzolan' hitza erabiltzea, eta, hori, oso zilegi da, baina, nik, Etxarri Larraunen, behinik behin, ezagutu nuen auzolanetara, etxe bakoitzetik pertsona bana, gutxienez, joaten zen, herriko bideak konpontzera eta abar, baina inork ez zuen deus ere kobratzen; kontzejuak hamaiketakoak eta antzeko gauzak jartzen zituen. Nire galdera haxe da, Iñigo Urkullu jaunak horren gustukoa duen 'auzolan' erabilera horretan, berak eta bere sailburu guztiek, eginen ote dute inoiz inolako lanik herriaren alde, sosik batere kobratu gabe? Nik ez daukat erantzun segurua, baina susmo handia, ez dutela eginen, bai.

Hala eta guztiz ere, gora benetako auzolana, hau da, diru trukerik gabe egiten dena!; hitza prostituitu gabetik praktikatzeko dena!

Xanti Begiristain Madotz (Auritz).

ARALAR ZAINDU DEZAGUN. GASBIDEA HEMENDIK EZ!

Nedgia enpresak Nafarroako Gobernuak baimenarekin Arakil eta Lekunberri lotzen dituen 14 kilometroko gasbidea eraiki nahi du.

Gasbidea 8 metroko zabalera duen bide bat irekiko luke eta 5 km-tan zehar Aralar Babes Gunea igaroko luke. Obran 5.000 zuhaitzik gora moztuko lirake, tartean pagadiak, pinuak, haritzak eta espezie babestuak. Ondare horrek 500 urte baino gehiago iraun du, eta enpresak ez du inguru kaltetua basoberritzeko plan argirik aurkeztu. Gainera, gasbidea lurpeko haitzuloz eta akuiferoz betetako paraje karstikoetatik igaroko litzateke, trikuharrietatik hurbil eta ez dakigu zer-nolako azterketa topografiko eta geologikoak egin diren.

Gasbiderako ez dira behar bezala baloratu ingurumenaren eta ekonomiaren ikuspegitik jasangarriagoak diren beste aukera batzuk. Eta horrek, errealitatean, proiektu bat inposatzea dakar. Ondorioz Aralar inguruko bizilagun, kontzeju eta udalerriekin gatazka sortzea ekarri du eta egoera judizializatzea.

Inposaketaren aurrean elkarriketari heldu behar zaiola pentsatzen dugu, gure herri eta inguruen garapena baitago jokoan. Horrexegatik gasbidearen inguruan berri ematen jarraituko dugu, eta ildo horretatik urrian hitzaldi ireki bat antolatu dugu Larraunen; azaroan berriz, mendi martxa bat egiten dugu Astiztik Lekunberri. Proiektuak eztabaida irekia eta gardena behar duela uste dugu, eta Aralar Zaindu Dezagun plataformatik lanean jarraituko dugu behar den informazio helaraziz.

Aralar Zaindu Dezagun Plataforma.

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.

AMERIKETARA JOAN NINTZEN XENTIMORIK GABE...

Kanta zaharrak dion bezala joaten omen ziren AEBetara garai bateko artzainak, *american dream* delakoa gauzatzeko asmoz. Eta halaxe iritsi zaizkigu, gaur arte, kultur ondare bihurtu zaizkigun hamaika istorio eta abenturak.

Garaiak aldatu dira orduz gero; eta egun, ez da gose, gerrate, maiorazgo edo halakorik. Orain kreditu txartel eta iphonekin etortzen gara abioiez. Baina zera esan dezaket, garai batean etortzen zireneko abentura grin eta ezjakintasun irrika bera dakarkigula ozeanoa gurtzatzean.

Lerro hauek Alaskako Ruth glaziarrean, kanpin dandan harrapatuta, idazten ditut, ekaitza baretu eta inguratzen gaituzten hormatzarrak eskalatu zain gaudela. Garaiak aldatu dira alajaina!

Urtebete da jada Euskal Herritik atera eta AEBetarako bidea egin nuela beste bi lagunekin batera, etxeko COVID bizimodu petraletik ihesi. Baina, petrala izanagatik ere, pasa dena, urte interesgarria dela deritzot, zenbait jende ederki izorratuta egon arren, bertatik hausnarketa zein ondorio probetxugarriak atera daitezkeelako. Txarrenari onena ateratzeko baino ez omen du balio gaitzak eta.

Pertsonalki ezintasun eta mugei gain hartuz nire ilusioei jarraitzen ikasi dut; ezetzari baietza eman eta bidean jarraitzen. Azken batean, maskara zein alerta egoera baliatuz ezarri diren muga eta errestrikzio guztiek, neurri batean gizartea artaldetu eta jende askori bizi grina kentzeko baino balio ez dutela izan deritzot.

Egoerak egoera, gure bizitza estiloari uko egin ordez, honi eustekotan etorri ginen AEBetara, lan pixka bat egin, bidaiatu, eskalatu eta ongi bizitzekotan.

Aipatu bezala, garaiak aldatu dira, eta garai batean artzain edo basolanetan aritzen ziren eran, egun kalamu industrian aritzen gara lanean. Eta ez da zaila izan poltsikoak bete orduko errepidea jo eta bidaiatuz pasio dudan eskaladaz gozatzea. Oregon hegoaldeko marihuana soro amaigabeetan aritu naiz eta Kalifornian The Road (errepidea) delakoa ezagutu. Hala, bidean ezaguturiko hamaika lagunekin batera, harkaitzez harkaitz ibili gara: Joshua Treeko basamortuan, Bishopko bloke zein mendietan, Las Vegaseko kasino zein areharrian, Yosemiteko hormatzarretan... Era honetara garaiazen arabera kondizio onen bila ibiliz. Eta esan bezala Denali parke nazionalako glaziar batean hilabetez eskalatzen nabil momentuan.

Amaitzeko esan, aspaldian idatzi nahi izan ditudan leerro hauek ez direla AEBak goraiatu, hemen bizi hobe dela esan edo bidaiari bizi estiloaz harrotzeko. Inondik ere. Baizik eta norberak egindakoaz (edo egin gabekoaz) eta orokorrean pasa den urteaz hausnartzera bultzatzea dut helburu. Erakutsiz nola nork gure bidea eta ametsak jarraitu ditzakegun egoera edozein izanda ere (nahiz eta honek zenbait arrisku, erronka edo ilegaltasun suposatu zenbaitetan).

Gure attona zenak esaten zuen bezala, BIZI LEHEN-BIZI!

Eskalatzaile ameslaria.



“Hau sortzaile handien habia izan da, eta ez nuen horrek ni blokeatzerik nahi”

Udalbiltzaren 'Geuretik Sortuak' egitasmoaren harira, Iñaki Martiarena Otxotorena 'Mattin' marrazkilariak egonaldi artistiko bat egin du gurean; zehazki, Uztegin eta Oderitzen izan da bi aste inguruz, eta heldu diren asteetan aurkeztuko dute sortutako komikia. Ura eta emakumea izan ditu ardatz: bizitza.

Urte asko daramatzazu marrazten, komikigintzan, ilustratzaile lanetan...

Neure buruaz esango nuke komunikatzaile bisuala naizela. Hainbeste urte eta gero, konklusio horretara iritsi naiz. Egia da, nire kasuan, zubi lana egiten dudala euskararen eta irudiaren artean. Hori da nire dohaina, eta, hain zuzen ere, horretan egiten dut lan. Komikiaren bidez, zirrikitu bat ikusi nuen, eta neure burua aurkeztu nuen, nire egitasmoa.

Komunikatzean, beraz, irakurlearengana ailegatzea duzu helburu, hartu-eman bat sortzea? Ez soilik

“Hau eremu euskalduna izanik, arnasa ere hartu dut”

zuk nahi duzun hori adieraztea.

Hori da. Komunikazio bisual horren barruan hainbat gauza daude, arbola batean adarrak bezala: komikia, ilustrazioak, jende aurrean sormen tailerrak egiten ditut, orain oso modan dauden infografiak... Azken horiek gaztaroan ere egiten genituen, *Egunkarian* adibidez, eta orain *visual thinking* esaten dio horri edozeinek. Eta esaten dut: “joe, orain dela 30 urte egiten nuen!”. Horretan guztian ari naiz. Azken hilabeteotako jarduna errepasatzen ari naiz. Oso eskertuta nago aukera honekin, eta oso argi daukat egitasmo hau auzolan baten modukoa dela.

Nolatan erabaki zenuen *Geuretik Sortuak* egitasmoa aurkeztea?

Alde batetik, premia ekonomikoagatik, dudarik gabe, hori aitortu beharra daukagu, nire lanbidea delako. Beste alde batetik, ideia gustatu zitzaidan. Ahuldade horretan gelditu beharrean, bizitza osoa daramagu marru, negar edo tristura gorrekin, esanez ahulak garela, eta, jakina, gaitz edo dena delako honek ahultasun handiagoa ekarri digu. Egoera honetan, geure burua indartu egin behar dugu. Eskertuta nago, sortzaileoi duintasunez lan egiteko aukera bat eman digutelako. Hori azpimarratu egin nahi dut, eta eskertu. Eta, era berean, ikuspegi hori ez dut galtzen: gaur ni izan naiz hautatua, baina hemen lantalde bat dago. Beharbada hitz politikak dira, baina nik sinetsi egiten dut horretan.

Uztegin egin du egonaldiaren lehen partea. Arg: Labrit.



Mattin-ek Mailoperentzat egindako ilustrazioa.



Artista asko aurkeztu zineten deialdira, 73, eta 26k baino ezin izan duzue parte hartu.

Bai, tamalez. Bide luze bat egiten ari gara dagoeneko; nik 30 urte darrazkit, gorabeherekin, baina txoro-txoro, urte batzuk bai.

Proiektu bat aurkeztu behar izan zenuten izena emateko?

Baldintzak ikusi nituen, eta aurretik honezkero ere ari nintzen proiektu batean lanean; beti izaten dut sukaldoko sua piztuta, eta aukera hori ikusi nuenean erabaki nuen aurkeztea egokia izan zitekeen egitasmo bat. Horrelakoetan erantzuna beti izaten da ustekabea: egitasmo bat bidaltzen duzu eta ereiten duzu. Esango nuke, beharbada, baldintza egokiak daudela hau ernaltzeko. Alperrikakoa da hazi on bat edukitzea ez badituzu baldintza egokiak. Eta hori da artiston arazoa: egiturazko arazo bat daukagu.

Zer pentsatu zenuen Araitz-Betelu-Larraun ibarra egokitu zitzaizula jakin zenuenean?

Ez nuen prozesu honetan ardurak blokeatzerik nahi; beti izaten dira gorabeherak. Hasieran ardura handia sumatu nuen. Hau artista eta sortzaile handien habia izan da, eta ez nuen horrek ni blokeatzerik nahi. Astebete igarota [Uztegin izan da elkarrizketa, uztaila hasieran], etxearen oinarriak egina dauzkatela esan dezaket. Ideia pila bat ekarri nituen, burusia ideiaz beteta, eta, astebeteko bizipenak eta gero, bizkarrezurra edo oinarria jartzen hasi naiz.

Zer kontu dezakezu egiten ari zaren lanari buruz? Nolako produktua da?

Komiki bat izango da, urari buruzkoa, hogeitortzi orrialdekoa. Noski, komikia egiteko modu asko daude, komikiaren zentzu zabalean. Azken

finean, komikia paperezko zinea da. Inoiz baino gehiago jarri naiz irakurlearen lekuan. Irakurleak gustura irakurriko duen zerbait izan behar da. Zer nahi dugu? Arnasa hartzeko balioko digun zerbait; ez dut esango alai, baina nik beti sortzen dut umoretik.

Zergatik aukeratu duzu ura?

Ura batez ere, eta emakumea; bi aitzakia horiek ditu proiektuak. Ez dut irakurleak espektatiba handiak egiterik nahi, baina bi aitzakia horiek hartu ditut. Ura bizitza da. Iruditzen zitzaidan aitzakia ona izan zitekeela nire bidean pauso berri bat emateko.

Egun batzuk hemen egin eta gero, zer iruditzen zaizu ingurua? Hemenengo bizimodua?

Aurretik ere hemendik pasatutakoa naiz, mendian zein bizikletaz. Horregatik, niretzat ez da eremu arrotz bat. Eremu euskalduna izanik, arnasa ere hartu dudala esango nuke. Izan ere, ni eremu erdaldun batean bizi naiz, Altzan [Donostia, Gipuzkoa], eta hemen arnasa hartu dut. Gainera, oso harrera ona egin didate.

“Nire kasuan, lan bikoitza da: idatzi eta marraztu egiten dut”



Noizko egongo da prest proiektua?

Irailaren 15erako eginda izan behar dugu jada, idatzia eta marraztua. Nire kasuan, lan bikoitza da: idatzi eta marraztu egiten dut. Hori da komikiaren xarma. Zorionez ala zoritxarrez, kultura bisualean nago erabat sartuta, eta nik daukadan dohaina da biak uztartzen ditudala; lehen aipatutako zubi lana egiten dut irudiaren eta euskararen artean.

Euskara aipatzen duzu zubiaren harri nagusi gisa. Zergatik? Euskara bultzatzeko helburuarekin egiten duzu lan, euskara presente daukazu zure lanetan...?

Euskararen aldeko hautua egiten dut euskaraz lan egiteko, ez euskararen alde. Egia da nik uste, azken batean, transmisio lan bat egiten ari naizela, eta alderdi horretatik ari naiz hitz egiten. Esango nizuke, alde batetik, bai dela sortzea, baina badela transmisioa ere honezkero. Ni alde horretan nago. Ohartzen naiz transmisio bat egiten ari naizela, eta hor sartzen da euskaraz egitea. Ondare bat galtzen ari dela ikusten dut, euskara, eta ondare hori transmititzen ari naiz. Azken urteetan batez ere kontzienteagoa naiz horretaz. Urteetan eta mendeetan jaso dugun ondare hori galtzen ari da, eta guri dagokigu transmisio hori egitea. Beste esparru batzuetan ere ari naiz transmisio hori egiten.

Haurrei zuzendutako lan asko egin dituzu; tartean, 20 urte bete dituen Belardo. Zaila al da haurrentzat sortzea?

Ez. Nire kasuan, haurrekin ikastetxeetan zein kultur etxeetan sormen lan asko egiten ari naiz; tailer asko eman ditut azken urteetan. Horrez gain, hezkuntza ez-formalean ere aritzen naiz. Ez da soilik sortzea; hiru zutabetan ari naiz momentu honetan: sortzen, hezkuntza ez-formalean eta transmisioan.

IORTIA LI INCA ESTIVAL - HORTZ ELIKINA

Juanjo Gaité García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 - 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 - 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

Konfinamendu garaian helduentzako komiki bat argitaratu zenuen: Klak!. Garai horrek inspiratu zintuen ala lehenagotik zenuen ideia bat zen?

Hori honezkero kontu zaharra da. Konfinamenduan sortu nuen gure barrenak askatzeko. Lan horrek ez dauka zerikusirik honekin. Barre egiteko sortu nuen. Esango nuke alor pertsonala eta ogibidea izaten ditugula; batzuetan bat datoz, eta beste batzuetan ez. Klak! guztiz pertsonala zen. Zortziko argialetxeak argitaratu zuen, Donibane Lohizuneko [Lapurdi] argialetxe batek, eta honezkero bere bidea egiten ari da. Kasu horretan, komiki mutu bat izan zen, irudi hutsez osatua, eta zuri-beltzean.

Aurrera begira, zer beste lan daukazu buruan? Zertan zabilta?

Proiektu hezitzaile batzuk ditut martxan. Sormen tailerrak eskaintzen ditut, umeentzako batez ere, eta heldu batzuentzako ere bai. Agenda betetzen ari naiz, bai behintzat abendura arte. Eta gero beste liburu pare bat ere badituz; bizpahiru gauza bai.

Sormena hain beharrezkoa izan arren, oro har uste duzu denbora gutxi eskaintzen zaiola sormena lantzeari eta geure kabuz gauzak sortzeari?

Agian kontu sakonetan sartzea da. Niri iruditzen zait ezinbestekoa dugula autorregulatzea, eta autorregulatzeko modu bat da sortzea, edo zure emozioak edo gorabeherak bideratzea. Nik uste hori ezinbestekoa dela. Maila pertsonalean ari naiz. Gero beste kontu bat da lanbidea. Zer pasatzen da? Ba, batzuek hori egiteko premia handiagoa dugula. Autorregulatu behar gara, edo gorpuzta nahiz emozioak adierazi egin behar ditugu, lanbidea ere izan



Geuretik Sortuak egitasmoaren harira egindako irudia.

gabe. Eta, horretarako, denbora ezinbestekoa da. Denboraren galera ikaragarria daukagu, denboraren lapurreta bat gertatzen ari da, denbora urritzen ari zaigu. Ni ere lanean-edo ari naizenean, tarte bat hartzen dut niretzako, norberak bere buruari entzuteko. Nire kasuan, prozesu baten ondorioa izan da sormena lanbide bihurtzea, eta ez helburu bat. Gaztetatik neure burua kokatzen hasi naiz, prozesu psikologiko zein emozionalak, eta, azkenean, lanbide bihurtuta, gorabeherekin jakina.

Zuen sektorean, gainera, egoera ez da samurra; baliabide gutxi izaten dituzue.

Guri kohesioa falta zaigu; bueno, gizartean oro har. Beste jardun batzuetan ere aritzen naiz, komikiarekin zerikusirik ez dutenetan, eta horietan ere kohesioa da helburua, konfiantzazko guneak lortzea, gure premia afektiboak eta bestelakoak asetzeko.

“Euskara galtzen ari dela ikusten dut, eta ondare hori transmititzen ari naiz”

NEKAZARI, S.L.



 Olagain. Mugiro. Nafarroa
 Tel.: 948504128
 Fax: 948504377
 nekazaris@hotmail.com

BIDEGOXO JATETXEA
 Jaunartzeak
 Ezkontzak
 Ospakizunak
 Enpresa ekitaldiak
 Usabal Kiroldegia
 20400-TOLOSA 943 577 573
 info@bidegoxo.com

Hilekoa: beldurrak, kezkek eta zalantzak

Veronica Satrustegi

Apirileko alean, hilekoari buruz jardun genuen atal honetan. Hain zuzen, Veronica Satrustegik hilekoaren gakoak eman zizkigun: hilekoa zer den azaldu genuen, noiz izaten duten emakumezkoek aurreneko hilekoa, zer aldaketa gertatzen diren gorputzean, hilekoaren zikloak zenbat egun irauten duen, zer erabili dezakegun hilekoa dugunean, eta abar. Azken finean, berez, emakume guztiek dakiten informazioa da, aintzat hartuta norberak ikusten duela gorputzean zer gertatzen zaion eta norberak dakielako hobekien nola sentitzen den.

Baina, ikusi genuen bezala, desberdintasunak izaten dira emakumeen artean, eta gizartean oso errotuta dauden informazio faltsuak daude; ondorioz, emakume asko eta asko desinformatuta daude, edota uste dute beren hilekoa "ez dela ohikoa". Desinformazio eta mito horiei tiraka, ale honetako atal honetan ere hilekoari buruz hitz egingo dugu, baina, zehazki, hilekoak emakumeei sortzen dizkieten beldur, kezka, segurtasunik eza eta emozio horiei guztiari buruz. Hona hemen Veronicak gai honi buruz esandakoa.

► HILEKOAK MIN EMATEN AL DU?

Esaten badizut hilekoak ez duela minik eman behar? Beti esan digutenari kontra egin eta sineskeria honekin bukatu behar dugu.

Hausnartu dezagun pixka bat: gure gorputzaren behar eta prozesu naturalek ez dute minik eman behar. Adibidez, kaka egitean mina sentitzen badugu, behin eta berriro, badakigu zerbait ez doala ongi, ezta? Edo digestioa egitean, esaterako. Edo pixa egitean mina badugu, medikuarenera joaten gara. Zergatik ez dugu hilekoaren minarekin berdin egiten? Zergatik normalizatu dugu hilekoaren mina?

Gogoratu gure gorputzaren prozesu naturalek ez dutela minik eragin behar. Minak zerbait esan nahiko digu eta gure eginbarra da entzutea.

Hala ere, molestiak edo min-arina sentitzea normala da. Zergatik? Hilekoa hanturazko prozesu bat delako (hau da, inflamatorioa), beraz karranpak sentitzea normala da. Baina non dago bien arteko muga? Zer da mina eta zer da min-arina?

Hitz gutxitan: mina tratatzeko zailagoa izaten da. Hau da: mina ezin badugu modu naturalean (infusioekin, elikagaiekin, masajeekin...) edo sintetikoki (ibuprofenoekin, esaterako) tratatu, orduan ginekologoarenera joatea izanen da aukerarik egokiena.

► GINEKOLOGOARENGANA JOAN BEHAR DUT HILEKOA IZATEN HASTEAN?

Ez duzu zertan joan behar, betiere min handirik ez baduzu. Hala ere, informazioa eskatu nahi baduzu, aurrera. Jo ginekologoarenera edo menstruazio hezitzaileengana zure zalantzak argitzeko.



▶ HILEKOAREKIN NAGOEN EGUNETAN SORTZEN ZAIZKIDAN BELDURRAK

Arropa edo klaseko aukia gorritz tindatzea, konpresak edo tanpoiak erostera joatea, norbaitek hilekoarekin gaudela jakitea (eta horregatik pasatzen ditugu tanpoi eta konpresak sekretupean), igerilekura/hondartzara joatea... horiek dira beldur ohikoenak.

Eta, noski, ginekologoarenera joatea.

▶ ZERGATIK SENTITZEN DITUGU BELDUR HORIEK?

Emakumeon gauza dela pentsatzen dugu eta automatikoki mutilak, edo zakila dutenak, alde batera uzten ditugu, orduan estereotipoak eta informazio falta biderkatu egiten dira. Eta orduan lotsa, beldurra, amorrua, nazka... sentitzen dugu.

Baina pentsatu al dugu inoiz munduko herritarren erdiari gerta dakioken zerbait dela? Munduko biztanleriaren erdiak tindatu dezake aukia gorritz, eta bi segundotan konpondu daitekeen zerbait da: papera hartu, garbitu eta kito.

Edo belarretan etzan eta praka berdez zikintzen dugunean, zergatik sentitzen dugu gorritz tindatzen dugunean baina lotsa gutxiago? Gorriak berdeak baino lotsa handiagoa ematen du ala?

Igerilekura edo hondartzara joateak ere beldurra ematen digu maiz, baina tanpoia edo koparekin arazorik gabe bainatu gaitzke! Eta ez badugu uretara sartu nahi, gure erabakia da.

Biztanleriaren erdia gara eta denoi pasatzen ahal zaizkigun egoerak dira, baina beldurra izaten erakutsi digute eta gu gara hori aldatzen hasi gaitzkeenak.

Zer esanik ez ginekologoaren kontsultari buruz. Hor ikusten da zeinen beharrezkoa den kalitatezko sexu eta menstruazio heziketa bat jasotzea. Hauekin bakarrik lortuko dugu ginekologoarenera joatearen beldurra ezabatzea.



Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es



SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



TAXILON
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com
Atallu - Araitz

Lontxo
Otamendi
Artola



LUJANBIO ETA ARTETXEREN AHOTSAK UZTEGIN

Maialen Lujanbio eta Miren Artetxe bertsolarien saio apartaz gozatzeko aukera izan zuten uztailaren 23an Uztegiako frontoira joan zirenek. Araitz eta Beteluko Tximuutxe bilgune feministak antolatua zuen saioa, *Gure gorputzen jabe* programazio feministaren barruan. Hurrengo txanda Andreina Jolin taldearena izango da, irailaren 12an, 18:30ean, eta urrian samurtasun eta sexualitate tailerra egingo dute, baita konpresa erabilgarriena ere.



AIRE GIROTUA OSASUN ETXEKO GOIKO SOLAIRUAN

Larraungo Udalak, osasun langileen eta herritarren kexak aintzat hartuta, aire girotua instalatu du Osasun Etxeko goiko solairuan, udako tenperatura altuak saihesteko. Bertan daude mediku baten kontsulta, erizain batena eta herritarren errehabilitaziorako fisioterapia gunea. Udalak Nafarroako Gobernuarekin adostu du proiektua. Egitasmoaren kostua 8.645,45 eurokoa izan da, eta gobernutik jasoko den diru laguntza bati esker osorik finantzatu da.

LEKUNBERRIKO INDUSTRIALDEA HEDATZEN

Lekunberri de Corte SI (Lekort) enpresak instalazioak eta ekoizpen ahalmena handituko ditu, eta, horretarako, 3.200 m²-ko pabiloi berri bat eraikiko du, gaur egungoari atxikita egongo dena. Lurzati horrek 4.500 m² izango ditu. Enpresak haitze-sorgailuentzako ardatzak egiten ditu, nazioarteko prozesu berritzaile baten bidez.





INDARKERIA MATXISTAREN BESTE BIKTIMA BAT

Eraso matxistak ugaritu egin dira pandemian, hainbat adituk adierazi dutenez, eta indarkeria matxistak udan ere ez du etenik izan. Hain zuzen, uztailaren 7an, gizonezko batek autoarekin emakume bat bidetik aterarazi zuen; harengana joan, eta labankadaz hil zuen, Murchanten. Koinatuak ziren. Indarkeria matxistaren ondorioz 2021ean Euskal Herrian hildako laugarren emakumea izan da. Horren aurrean, elkarretaratzea egin zuten Lekunberrin.



'GABARI', LARRAUNGO ERABILERA ANITZEKO GELA

Larraungo Udalak abiatutako prozesu parte hartzailearen ondoren, Larraungo udaletxe gaineko areto berriak badu izena: Gabari aukerak jaso ditu boto gehien, botoen %56,4. Zortzi izan dira herritarrek proposatutako izenak: *Arana, Antxueta, Etxegaine, Gabari, Ganbara, Larraun, Txepetxa eta Urrizti*. 39 pertsonak parte hartu dute izena erabakitzeke prozesuan. Udalaren asmoa da aretoa hila-bete honetan bertan estreinatzea.

KABLEAREN EGUNA

Azken urteotan Araiztarrek berreskuratu duten ohiturari jarraiki, Kablearen Eguna ospatu zuten Gaintzan. Egun mailoetatik belarra jaisteko erabiltzen ez diren arren, erakustaldia egin ohi dute. Bideo emanaldi bat egin zuten aurrena, eta erakustaldiaren ondoren, bertako produktuekin egindako pin-txoak dastatu zituzten.



Aralarren erraietaraino

'Aralar, Kirikuren begirada' erakusketa ondu dute Astiz-Irujo fundazioak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak, inguruko herritarren, eragileen eta udalen laguntzarekin. Aralarren argiak eta ilunak kontatzen ditu. Herritarrek erakusketa beren sentitzea nahi izan dute. Udalek nabarmendu dute zer inportantea den ondarea balioan jartzea eta elkarlanean aritzea. Antonea Etxean dago ikusgai, urtebetez.

16

Mendi bat begi kolpe batez ikusten dena baino askoz ere gehiago da. Animalia eta landareen bizitoki izateaz gain, mendi batek gordetzen dituen historia, ohiturak, sinesmenak eta sentimendua ondare harri-

garria izaten da. Are gehiago mendi bat inguruko herritarren sostengu bihurtzen denean, herritarren akuilu. Horrelako zerbait gertatzen da Aralar mendilerroarekin. Gure ibarrak ezin uler daitezke Aralarrik gabe, eta Ara-

lar bera ezin uler daiteke hemengo herritarrek eman diotena gabe.

Jakina da Aralarrek hamaika altxor dituela gordeta, eta aspaldidanik izan dela ikerketarako eta zientziarako interes handiko eremu bat. Gaur egun hainbat dira Aralar mendilerroaren kontserbazioaren alde lan egiten duten elkarteak. Horietako bat da Astiz-Irujo fundazioa, Larraungo ibarra eta Aralar mendiko natura eta kultura ondarearen kontserbazioa bermatzeko ekimenak bultzatzen ari den irabazi askorik gabeko elkarte. Lekunberrin dago kokatua, eta bertako eragile publiko eta pribatuekin dihardu elkarlanean. Pilar Astiz anderea eta Bautista Irujo jauna hil ostean egindako ondare ekarpenean du jatorria, eta hortik datorkio izena.

Kontserbazioa sustatzeaz gain, fundazioaren beste helburuetako bat ondare kultural eta naturala ezagutaraztea da. Ildo horretan, *Aralar, Kirikuren begirada* izeneko erakusketa dago ikusgai gaur egun fundazioaren egoitza den Antonea Etxean, Lekunberrin. Astiz-Irujorekin elkarlanean, Aranzadi Zientzia Elkarte arduratu da erakusketa ontzeaz. Aralarren azken 100 urteetako historia biltzen du, eta mendiaren hainbat aspektu jorratu ditu zientzia elkarteak. Urtebetez egongo da ikusgai. Herritarren parte hartzea sustatu nahi izan dute erakusketaren antolatzaileek, herritarrek beren ekarpenak egitea eta erakusketaren parte senti daitezen. Besteak beste, Lekunberriko Saralegi eta Azpiroz familiek, Ondare Kultur Taldeak eta Benjamin Botanzenk utzi dizkiete pieza batzuk.



Aralarko hainbat txabolaren irudiak daude ikusgai. Arg: Labrit.

Suberri Matelo Aranzadi Zientzia Elkarteko Etnografia Saileko kidea da, eta erakusketako komisariotako bat. Aranzadiko hiru departamentuk parte hartu dute erakusketaren muntaiari: Etnografia, Botanika eta Herpetologia Sailek, hain zuzen. Aralar mendilerroa ardatz duen erakusketa bat egin dute, Mateloren esanetan, mendi batek eman posible dituen aspektu asko jorratuta. Erakusketa hainbat gunetan banatu dute.

Done Mikel Aralarkoa

Erakusketaren aurreneko parada Done Mikel Aralarkoa aitzakiatzat hartuta sortu dute. Inguruko herrietan debozio handia du Done Mikelek, baina, Matelok azaldu duenez, debozio horrez gain edo sinesmen erlijioso horretatik haratago ere gauza asko daude: "Azkenean, denok ditugu ateetan eguzki loreak, gurutzeak... iruditzen zitzaigun mendia magikoa zela". Horregatik jarri zioten izen hori: Mendi magikoa.

Aranzadiren ikerketak

Sinesmenei buruzko txokoaren parean, Aranzadi Zientzia Elkartea protagonista duena dago. Izan ere, Aranzadi Aralarren jaio zen, 1940ko hamarkadan. Ikerlari talde bat, geroa Aranzadi izan zen taldea, txango batzuk egiten hasi zen. Espainiatik ere etortzen ziren ikerlariak Aralar ikertzera. Txoko horretan dauden argazkietan espedizio horiek ikus daitezke, baita garai hartan erabiltzen zituzten tresna batzuk ere. "Lehendabiziko ikerketa zientifiko horiek azpimarratzen digute gaur egun Aralar



Antonea Etxean dago erakusketa, Lekunberrin. Arg: Labrit.

naturaren begietatik ikusita garrantzitsua bada ere, lehen ere, orain dela 100 urte, ikerlari askorentzat helmuga bat zela".

Geologia

Hirugarren atalean azaltzen dena da Aralar nola dagoen eгина edo zergatik dagoen mendilerroa hor. Erakusketaren antolatzaileek fosilen aukeraketa bat egin dute, eta, hain zuzen, geologiari buruz hitz egiten da hemen. Irañetako bizilagun batek, Benjamin Botanzek, Aralarreko fosil pila bat utzi dizkie. Horixe herritarren parte hartzearen adibide bat. Aralar ur azpian egonenez, arrefize moduko bat izan baitzen, fosil guztiak ur azpiko bizidunenak dira: koralak, karramarroak...

Historiaurrea eta arkeologia

Historian atzera egiten segitzen du

erakusketak, historiaurrera ailegatu arte. Horren arrazoi argitu du Matelok: "Lehen gizakiari buruz hitz egiteko, hitz egin behar da lehen gizaki horiek ikertzen zituzten lehendabiziko ikerlari horietaz: Barandiaran...". Lehengo ikerketa horiek, gainera, ikerketa berriagoekin lotzen dituzte, eta helarazi nahi duten mezua argia da: "Esan nahi dugu arkeologia ez dela bukatu, oraindik asko dagoela ikertzeko, eta asko jakin dezakegula garai zaharrei buruz mendiari begiratuta".

Fauna eta flora

Ikerketak eta zientzialariak alde batera utzita, naturan murgiltzen da erakusketa. Gaur egun dauden espezieei buruz hitz egiten dute atal honetan. Kasu honetan ere, hausnarketa bat dago erakusten denaren atzean: "Nahi genuen jendeak hausnartzea



Irudian, azeriak ehizatuta. Eskuinean, azeri batzuk eta uruguai basoilar bat diseatuta. Arg: Labrit.

gaur egun daukagun fauna eta flora ez dela beti horrela izan; ehizari buruz hitz egiten dugu lehenengo hemen". Benetan txundigarria da txoko honetan ikus daitekeen lehenengo argazkia: gizon bat ageri da, atzean azeri pila bat ehizatuta dituela. 1970eko hamarkadako argazki bat da. *Basapiztiak ehizatzen, babestera* izena jarri diote atal honi; hain zuzen, lehen ehizatu ohi ziren animaliak batzuk gaur egun babestu egiten direlako, hala nola azkonarrak. Bestalde, gaur egun ez dauden espezie batzuk aipatzen dituzte, eta Aranzadin ziztuzten diseatutako espezie batzuk erabili dituzte; uruguai basoilar bat,

esaterako. Garai batean Aralarren bizi zen hegazti espezie bat da, nahiko handia eta koloretsua.

Kiriku ugatza, erakusketaren ikur

Ugatza eder baten irudia da erakusketaren sinboloa, eta ez da kasualitatea. Asturiasko Fernando Fueyo artistak egin du irudia, akuarelarekin. Matelok azaldu duenez, Arbaiungo arriolan jaio zen Kiriku, eta 2011. urte inguruan Aralarretan etorri zen bizitzera. Bost urte geroago, Muel ugatza etorri zen, harrapari emea, eta urtebetera iritsi zen Eder, arra zena. Istorioa polita iruditzen zitzaizkien, eta Aranzadikoak nabarmendu du bazegoela arrazoi handi bat gertakari horren atzean: "Hemen gelditu bada gauzak ondo egiten ari garelako da". Matelok gehitu du erakusketari ikuspegi orokor bat emateko erabili dutela ugatza, hau da, adierazteko Kirikuk goitik ikusten duela Aralar, izan Nafarroa edo izan Gipuzkoa, mugarik gabe.

Mendia bizitokitza dutenak

Gizakiak naturan egin dituen beste esku hartze mota batzuk ere azpimarratu nahi izan dituzte: "Basoa usiatzen, ikatza egiten, belarra egiten, artzaintzatik... bizi izan den jendeari aurpegia jarri nahi izan diogu, egingadako lana goraiatu. Kontuan hartu behar dugu mendia bizitokia izan dela pertsona askorentzat. Haiek ezagutzen dute ongi natura, eta badakite nola errespetatu, baliabideak

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitarakoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

German Lasarte

ARBEONDO HARATEGIA

Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

nola zaindu". Atal honetan, Fermin Leizaola etnografoaren figura landu dute; orain dela 50 urte hasi zen artzaintzari buruzko ikerketak egin, eta egun hari esker dira ezagunak hainbat datu. Aranzadiko Etnografia Saileko zuzendaria da, eta erakusketako komisarioa ere bai.

Aisialdia

Txoko honetan bisitariak ez du testurik irakurriko, dena argazkiz osatuta baitago. Argazki horien bidez erakutsi nahi izan dutena da Aralar aisialdirako toki ere badela: ibiltzeko, eskiaitzeko... Aralar, bititoki izateaz gain edo zientziaren toki izateaz gain, gozatzeko leku bat ere badela.

Aralarren etorkizuna

Erakusketaren azken partea datorrenari begira sortu dute. Bisitariari mezu bat helarazi nahi izan diete Aranzadikoek, eta testu bat idatzi dute horretarako: "Hausnarketa bat da, esanez guk uste dugula Aralarrek agente guztiak kontuan hartuta eraiki behar duela etorkizuna: bertan bizi direnak, natura... Begirada oso global bat izan behar dugula, eta batez ere lehen sektorean jarri behar dugula begirada, naturatik bizi baitira. Lehen sektoreak lehendabiziko sektore izan behar du, haiek esan behar dute mendiak nola eboluzionatu behar duen".

Ondarea berreskuratzen

Berebiziko garrantzia du halako eritasmoak bultzatzea, baina ez da erraza baliabideak lortzea. Elkarlana funtsezko osagaia da, eta instituzioek laguntza eskaini behar dute. Larraungo eta Lekunberriko udalak bat datoz ideia horrekin. Hala esan du Gorka Azpiroz Lekunberriko alkatea: "Gurea den ondare material eta immateriala balorean jartzea, gure lurraerako identitatea indartzeaz gain, horren defendatzaile eta babesle izatea gure herrian bizitzeko harrotasuna eta baliabideak handitu eta zabaltzen ditu". Mikel Huarte Larraungo alkatea Azpiroz iritzi berekoa da, eta Ondare Kultur Taldeak egiten duen lana go-



Fernando Fueyo artistaren lanak. Arg: Labrit.

raipatu nahi izan du: "Ondare taldea egiten ari zen lanarekin eta, momentu honetan, arestian aipatutako beste zenbait eragileekin baino babesituago dagoela uste dugu. Garrantzia handiko lana egiten ari dira gure iragana balioan jartzeko". Halako lanak estrategikoak izan daitezkeela iritzi dute: "Sortzen diren ekimen guztiak, gizarteko arlo guzti eta desberdinetan, aukera berriak sortzen dituzte ez bakarrik herritarren aisialdirako baizik eta gure udalari eta ingurukoentzako aukerak garapen kultural eta sozioekonomikorako". Ibarren kokapenagatik ere estrategikoa dela adierazi du Huartek: "Aralar ezagutzera emateko ekimen guztiak estrategikoak dira gure zonalako".



Hitzaspertuan



●● Agurtzane Altuna

Abaro

Euskeak don hitzik polittenetakoat izangoa neetzako abaro. Besarkada batek bezalaxe, hainbat sentazio o sentipen barnebiltzetto abaro hitzek. Hala re, abaro esan eta itzalean daun artaldea etorriko zaio akaso askoi burutaa, baño abaro babesare bada; taldea, goxotasune, beroa, maitasune, ... besarkada.

Abaro eo abaroan eon ditteke, ume jaio berrie holaxe sentitzen da gurasoan besotan. Abaro in re in ditteke; pagopean botatako siesta definizio hortan kaitzeala esango nuke. Abaroa eman, norbatti babesare ematen zaionean esan ditteke. Ta abaroan euki litteke norbatte, sufritzen ai denean o besteik bare momentu goxo bat behar donean. Eon, in, eman o euki, ze goxoa den abarora. Onartu beharko nuke ez dela azindatan bakarria ibiltzeko hitze, baño abaro esan eta euzki galdatik ihesi joandako artaldea burutaa etortzen zaion sail hortakoa naiz ni re. Artzai ool arraston bat izangoalako nere zañetan, horreatik izango da akaso, baño taldean indarraz jabetue naulako re bada.

Uda han ta hemen, hango ta hemengo baztarretan ikusmiran ibiltzeko garai aproposa izatea. Hotzikara sentitze ańeko bertigoa emateo ttikitik haundire, hemengotik apartenekora allaatu bitartean zenbat txoko, herri, baztar, jende ezezaun daun ikusteak. Mundue ze haundie den eta gure herritxo hau ze ttikie sentitzean harri beire jarritakoan; ardi galduet bezalaxe larre zaalean.

Ta ardik bezala gu re kaka pillen eoteko joeraz; bat dien tokire besteak itsu-itsun joateaz, ta abaroan eoteaz hausnarrean hasi gean hontan, udako larre berrik proatuta, ze gustoa biltzen gean berriz abarora: etxea, familire, launartea, herrire... itzalea, babesare. Artaldea abaro jartzen denean besarkadan mugak lausotu itten dee gure bixtea: hostopeak besarkatze ote do artaldea o azindak beak pagopea goxoen. Taldeak abaro in arren, tadeak beak re eman baitezake abarora.

Batzuk joan besteak etorri, lekue utzi behar heldu den horri. Uda oparora joan da gure artaldean. Arkumetxo berrik jaio dee etxean, familin, launartean, herrin... Oparora izan da etorrie eta abarora, berriz, gure ongietorrie. Maitasune, goxotasune, berotasune... senti dezatela babesare gure abaroan, ta ongi izatea, luzarora.



Saralegi eta Rekondo garaile egurretan, eta Urrutia harriekin

Azken hilabeteotan bezalaxe, Lekunberri herri kirolen agertoki izan zen berriro ere abuztuan, eta ez nolanhiko probekin, gainera. Izan ere, Nafarroako bi txapelketa garrantzitsuak jokatu ziren: batetik, Nafarroako Bikotekako Aizkora Txapelketa, eta bestetik, Nafarroako Harri Jasotzaile Txapelketa. Hiru bikote aritu ziren aizkoran, eta Jon Rekondo leitzarra eta Eneko Saralegi errazkindarra nagusitu ziren Iker Vicente eta Iban Resano, eta Julen Kañameres eta Joxean Etxeberriaren aurretik. Sei kana-erdiko eta sei 60 ontzako moztu behar izan zituzten proban. Bestalde, Josetxo Urrutiak jantzi zuen harri jasotzaileen txapelketako txapela, Albaro Zugarrondok baino altxaldi gehiago egin baitzituen harriarekin. Bi minutuko txandatan, hiru proba egin behar izan zituzten: 125 kiloko zilindroarekin, 112,5 kiloko kubikoarekin eta 100 kiloko bolarekin.

Pilota Elkartean izen emateko epea zabalik

Ez dago aitzakiarik pilotan ikasi, pilotaz gozatu eta lagunekin ongi pasatu nahi baduzu: Larraun Pilota Elkarteak atea zabaltzen du beste ikasturte batez, eta dagoeneko posible da 2021-2022 ikasturterako izena ematea. Gainera, irailean ate irekiak izango dituzte, izena eman baino lehen proba egin nahi duten horientzat. Izena emateko esteka bat sortu dute: estekan sartu, datuak bete, eta kito. Albiste honetan dagoen QR kodearen bidez eman dezakezue izena. Zalantzarik izanez gero ordutegiekin, entrenamenduekin edota beste zerbaitekin, idatzi larraunpe@gmail.com helbidera edota jarri harremanetan 677 755 147 zenbakiaren bidez. Lehendabiziko hilabetea dohainik izango da.



MAILOPEKO BAZKIDEA
IZAN NAHI DUZU?
mailope@labrit.net

Errotaldeia 19,
Lekunberri
MARTILLO TXIKI
PERKUSIO ESKOLA
www.martilotxiki.com
679 938 016

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arbe-Atallu

“Arku-tiroa kirol oso inklusiboa da”

Skadi arku-tiro kluba iazko irailean jarri zuten martxan, Lekunberrin, eta kirol hori ikastera eta horretaz gozatzerantz animatu ziren gaztetxoek emaitza oso onak lortu dituzte Nafarroako eta Espainiako arku-tiro txapelketetan. Eskola hilabete honetan hasiko da berriro ere entrenamenduekin, eta izen ematea irekita dago: 10 eta 14 urte arteko gazteei zuzenduta dago, eta izen emateko 615 757 400 zenbakira deitu edota skadi.navarra1@gmail.com helbidera idatzi behar da.



Koro Barea Skadi arku-tiro klubeko entrenatzailea eta hiru ikasle. Arg: Labrit.

Nola sortu zen Lekunberrin arku-tiro eskola bat irekitzeko ideia?

Nik urte dezente daramatzat arkulari bezala, eta hala lehiatu izan naiz. Donostiako arku klubetik nator, Diarco izenekotik, eta, egun batean, klubeko zenbait kidek ikastaro batzuk egitea erabaki genuen, teknikari gisa trebatzeko, neska-mutilak entrenatu ahal izate-

ko. Izena eman genuen, eta Donostian hasi ginen haurrei eskolak ematen. Eboluzionatzen jarraitu dugu, ikastaro gehiago egiten, eta maila altuan gaude orain. Duela bi urte, Lekunberrira etorri nintzen bizitzera. Orduan hasi zen dena. Lekunberriko Udalarekin batera, eskola martxan jartzea erabaki genuen 2020ko urtarrilean. Erakustaldi bat egin genuen, eta Donostian entrenatzen nituen neska-mutilak etorri ziren, bailarakoek kirola ezagut zezaten.

Izan ere, arku-tiroa ordura arte ez zen oso ezaguna izango inguruan.

Udalak ekarpen bat egin zuen, martxan jartzeko behar genuen materiala erosteko. Horrela, 2020ko irailean zortzi neska-mutil entrenatzen hasi ginen. Batez ere 10 eta 13 urte bitartekoak ziren, eta horrela lortu genuen lehiatzen hasia. Gabonak iritsi ziren, eta haur bakoitzak bere arku eskatu zion Olentzerori. Pixkanaka hobetuz joan ziren; arku banaka egiten den kirol bat denez, COVID-19aren ondorioz ez genituen entrenamenduak bertan behera utzi behar izan, eta nahi izan duten guztietan entrenatu ahal izan dira.

Lekunberriko Udalarekin hainbat hartu-eman izan ondoren, eta hainbat arrazoiengatik kluba osatzeko haren kudeaketa ezinezkoa zenez, gurasoak

Eskolako ikasleak entrenatzen. Arg: Koro Barea.



Biziraun



Uda garaian aire librean entrenatzen dira. Arg: Labrit.

elkartu ginen, eta erabaki genuen geure kabuz sortzea kluba, eta horrela sortu genuen Skadi eskola. Gaur egun kolaborazio hitzarmen bat dugu Lekunberriko Udalarekin, eta Larraungo Udalaren babesa dugu.

Zer kirol mota da arku-tiroa?

Oso kirol inklusiboa da. Ez du bereizketarik egiten mutilen eta nesken artean, eta, gainera, asko laguntzen du autodiziplina eta kontzentrazioa hobetzen. Gaztetxoei oso ondo doa-kie. Ez da beharrezkoa pultsua edo indarra izatea, askok uste duten bezala; dena teknika eta entrenamendu kontua da, eta, batez ere, gozatzea.

Non entrenatzen zarete?

Arku-tiroaren denboraldia bitan banatzen da: neguko denboraldia eta udako denboraldia. Neguko denboraldian kiroldegian entrenatzen gara, eta udan aire librean. Neguko eta udako Espainiako txapelketak daude. Apirilera arte, neska-mutilak kiroldegian entrenatu dira, eta ondoren, aire zabalean. Kiroldegian 18 metrotik botatzen da, eta aire zabalean, infantilen kasuan, 40 metrotik. Distantzia kategoriaren arabera da; zenbat eta adin handiagoa, orduan eta distantzia handiagoa.

Nola ikasten da geziak botatzen?

Haurrak simulagailu moduko batekin hasten dira: puxika luze batzuekin. Keinua egiten ikasten dute. Oso garrantzitsua da keinua ondo egiten irakastea, lesioak saihesteko. Guztira, klaseak ordu eta erdi irauten du. Hasieran, entrenamenduaren zati bat

puxikekin egiten da, eta gero geziak botatzen dituzte; distantzia motzetan puxikak lehertzeraz jolasten gara. Eta horrela ari dira pixkanaka entrenatzen. Entrenamenduaren barruan, arkuaren atalak irakasten dizkiegu, zertarako funtzionatzen duten, nola zaindu behar duten, eta, batez ere, segurtasuna da garrantzitsua eta erakusten zaien lehenengo gauza: ezin duzu arku ireki kide bati begira, beti dianara begira, postura, inoiz ez da arku irekitzen tiro eremuan norbait badago...

Gaur egun lehiatzen zara?

Eskolarekin hasi garenetik, ez dut astirik. Gaztetxoak entrenatzen ari ez direnean, arku hartu eta entrenatzera joaten naiz, baina alde batera utzi dut. Ni goi mailan lehiatzen nintzen, eta bi aldiz izan naiz Espainiako txapeldun. Oso zaila zen maila horri eustea. Orain aire zabaleko tiroaz gozatzen dut, tiro eremuan: lasaitu egiten nau.

Orain irailean berriro hasiko zarete entrenatzen?

Asmoa da hobekuntzako taldea mantentzea eta hasi berriekin beste talde bat egitea. 10 eta 14 urte bitarteko neska-mutilek eman dezakete izena, eta asmoa da neguan kiroldegian entrenatzen jarraitzea, eta udan, berriz, kanpoan. Badago ikasi eta entrenatu nahiko lukeen adineko jendea, baina, horretarako, ezinbestekoa da lekua eta denbora izatea; baina biharko egunean denbora eta leku gehiago izateko aukera badugu, 65-70 urtera arte irekiko dugu izen ematea; ez dago arazorik.

Esnatu naiz beste behin, denborari gudua irabazi diot berriz, baina noiz arte? Urteak, hilabeteak, edo segundo pare bat bakarrik, asperen lauso bat agian. Zein hauskorak diren uneak azkenak izan daitezkeela pentsatzen duzunean, eta zein iheskorak ametsak.

Txikitari amaigabeak izaten ziren istant guztiak, beldurak ez zuen bizitzeko geneukan gogoia iluntzen. Zaurgarritasun sakonenean bizi ginen konturatu ere egin gabe. Amildegia ertzean dantzan, begiak estaliak eta hegan egiteko hegorik gabe. Baina margoak prest, magia apurrez salbatuko zigun globo hegalaria kolorez betetzeko. Mundua geneukan etorkizun, mundua irabazteko, baina inork ez digu esaten zer esan nahi duen horrek, inork ez digu esaten zein handia eta arrotza den mundua amildegiz haratago.

Mundua irabazi, mundua menperatu. Darwinen joko zorroan partaidetza lortzen duzu jaiotzearekin batera, besapeko ogirik gabe askotan. Garrantzitsua parte hartzea omen, baina irabazten ez baduzu jokoan ez du zentzurik. Lehen hitzen jabe bihurtzen garenean mundua bihurtzen da gure jabe, Deabrua bera ote mundua?

Gaur beste behin esnatu naiz, eta amets bat daukat.

Piztiekin amaitu nahi dut. Inozentzia eta edertasuna ez daitezen garuntan oroitzapen huts bilakatu. Haurtzaroan bizi nahi dut, lehen aldien pozoi goxoan. Herriko kaleetan, eguzki izpiak pixkanaka itzaltzen diren ortzi-mugetan. Amildegira begiratu eta munduan biziraun.



Udako festak aire librean

Pandemia egoera dela eta, aurtengo udako herrietako festak ezohikoak izan dira. Hala ere, aire libreko hainbat ekitaldi antolatu dituzte herri batzuetan, hala nola Arriben, Azkaraten, Uztegin eta Gorritin. Bertso saioak eta herri kirolak antolatu dituzte gehienetan.

24



Arriben bertso bazkaria egin zuten Zubeldia eta Lizaso bertsolariekin.
Arg: Labrit.



Herri kirolak izan ziren Azkarateko plazan; trontzalariak eta aizkolariak aritu ziren. Arg: Labrit.

Bertso saioa izan zuten Gorritin, Pagozelai gainean.
Arg: Agurtzane Altuna.



Bizikleta kronoeskalada, Gorritin.
Arg: Agurtzane Altuna.



Uztegin herri kirolak eta marrazketa jolas bat egin zituzten. Arg: Labrit.



Ane Martijaren kantaldia, Gorritin. Arg: Agurtzane Altuna.



Azkarateko bertso saioa, Soto eta Zubeldiarekin. Arg: Labrit.



Estanga aita-semeak, Azkaraten. Arg: Labrit.



Barruan egia

Geure bizitzak bidaiak dira, gertaerez betetako bidaiak. Guztion bizitzak horrelakoak dira, gertaera latzak, indartsuak, gozoak, era guztietako gertaerak. Gertaera horiek gugandik kanpo gertatzen direla dirudite, ez geure barruan, eta txikitatik kanpora begira jartzen gara. Baina nire bizitza, nire baitan gertatzen da, ez kanpoan. Aspaldidanik jakin du gizakiak hauxe baina badirudi azken garaiotan ahaztu egiten ari garela geure barruko ahotsarekin. Honen adibide asko aurki ditzakegu mitologian. Neuk Ulises erregearen etxerako bidaiaren pasadizo bat aukeratu dut oraingoan. Ulises, Itakaren erregea, badator bere uhartera itsasoan zehar. Egungo Capriren ondotik pasa behar du eta badaki bertako arzeifetan sirenak bizi direla. Hauek oso ahots gozoa dute, liluragarria, eta gizonezkoak erakartzen dituzte halabarrez haien kantuekin bizi diren arroketera. Bertan ito egiten dira kantuok entzuten dituzten gizonezkoak. Ulisesek badaki arrisku handia dela bertatik pasatzea. Haren marinelei esaten die bera masta nagusian lotzea, entzun nahi baititu kantuok arriskurik gabe. Aldi berean marinel guztiek belarriak ongi estali behar dituzte ezer ez entzuteko eta lema bat ere ez okertzeko. Horrela saihesten dituzte Ulisesek eta bere gizonek kanpoko tentazio horiek. Neuk ere tinko heltzen diot neure mastari, nire bidean aurrera zuzen egiteko, kanpoko ahotsek ez nazaten nahastu.



AZKARATE

Slackline, Butoh dantza eta berrikuntza gehiago Azken Muga jaialdian



Bider X, bider Y, bider Z da seigarren Azken Muga arte eta kultura jaialdiaren leloa. Abuztuaren 20an abiatu zuten aurtengo egitasmoa, eta urriaren 2an utziko dute basoa datorren urtera arte. Zarateko lepoan, Azkarate eta Bedaio artean, antolatzen duten ekinbide horretan diziplina artistikoak, erakusketak, kultura eta ekoizpen propioak aurkeztuko dituzte hilabete eta erdiz. Aurten, gainera, hainbat berrikuntza izango ditu Azken Muga: slackline erakustaldia, dantza bertikalaren erakustaldia, antzerki tailerrak, ehungintzako serigrafia, Butoh dantza eta herri bazkari antzeztua. Eguraldiak laguntzen ez duen egunetan, ekitaldiak inguruko herrietan egingo dituzte. Besteak beste, honako artista hauek izan dira artisten egoitzan: Pablo Juarros, Ainhoa Alberdi, Francis Sosta, Elena Scaratti, Luis Zavala, Roberta Abeni, Nexgraff, Estibalitz Álvarez García, Jon Iñaki Ormazabal, Ramón Balerdi, Guillermo Olmo, Olatz Pereda, Ángels Artigas Claret, Mugalari Kolektiboa, Jofre Sebastian eta Javier Perez. Beste hainbat dira aste hauetarako antolatutako ekintzetan parte hartuko duten artistak.

LARRAUN-LEKUNBERRI

Kultur eskaintza zabala udan

Atseden hartzeko eta aisialdirako garaia izan ohi da uda, baita ongi pasatzea ere. Lekunberrin, besteak beste, kultur egitarau zabala osatu zuten udarako, eta erantzun oso ona izan du bertakoen eta inguruko herritarren partetik. Turismoak ere gora egin duela nabarmendu dute udaleko ordezkariak. Asteartetan, uztailaren 20tik abuztuaren 10era, esaterako, udako zinema izan dute frontoian, eta gaueko 22:00etan hasita, hainbat film ikusi ahal izan dituzte: *Akelarre*, *Padre no hay más que uno 2*, *Jumanji Siguiete Nivel* eta *Pan sekula betirako bidai*a. Zinemaz gain, azokek ere oso harrera ona izan dute. Hagoan taldearen kontzertua ere izan zen herriko plazan, eta kirolari ere tokia egin zioten: Asobal Ligako partida bat izan zen kirol gunean, ginkana dibertigarri bat eta Disc-Golf erakustaldia.

LEKUNBERRI

Azokaz azoka

Azokak ezinbestez egin beharreko bisita bihurtu dira azken hilabeteotan Lekunberrin, eta udan ere segida izan dute. Urtero egiten duten Antzinako Azokan giro paregabea izan zen, eta artisautza, tradizioa eta gastronomia izan ziren horren lekuko. Abuztuaren hondarrean, berriz, Nekazaritza Azoka prestatu zuten, Iturritak kalean.



Lekunberriko Antzinako Azoka. Arg: Labrit.



Nekazaritza Azoka. Arg: Labrit.



Erraldoiak eta kilikiak ere izan ziren azoketan.
Arg: Labrit.



27

Hostal Betelu

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak

Etorri eta
on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

amairu bar

ETXKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK

948504352

ALIPROX
Lekunberri
janaridenda

hamabostaldi
eskaintza bereziak

CONSTRUCCIONES

URANGA/SAIGÓS, S.L.

ERAIKUNTZAK

TEILATUAK
FATXADAK

ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri

“Larraungo jardueren elkargunea izan nahi du”

Larraun Bizi taldeak agenda digital bat sortu du, inguruko eragile eta taldeek beren jardueren berri eman ahal izan dezaten eta herritarrek eskaintza horien guztien jakinaren ganean egon daitezten. Parte hartzeko deia egin diete herritarrei nahiz eragileei, eta nabarmendu dute denon artean lan eginez gero “indartuta aterako garela”. Erreferente izateko sortu dute; halere, ekarpenak eta proposamenak entzuteko prest daude.

Nondik heldu da Larraun Bizi?

Sugoi: Larraun Bizi elkarte orain dela sei urte sortu zen, 2015eko urtarrilean. Konturatu ginen bailaran gauza asko egiten direla, baina egiten diren gauza horiek sakabanatuta daudela, edo bakoitzak bere inguruko taldeak antolatutako egitasmoetan parte hartze duela. Dispersio horren aurrean, bateratzeko zerbait behar zela pentsatu genuen. Horrekin lotuta, ikusi genuen herriak hustutzen ari zirela, eta joera horri buelta emateko sortu genuen, bailara bizi-berritzeko helburuarekin.

Rafa: Ikusten genuen jende berri asko etorri zela Lekunberrira, herri nagusira, eta egitasmoak antolatzen zirela, baina beharrezkoa dena, hau da, talde nortasuna, kolokan zegoela edo ez zela nabaritzen. Gure asmoa izan zen elkarguneak bilatzea, talde nortasun hori indartzeko, eta komunitatea osatzeko edo bultzatzeko.

Larraun Biziren barruan daude agendan ageri diren gainerako taldeak?

Sugoi: Eragile bakoitzak bere dinamika dauka, baina Larraun Bizik bultzatzen du dinamika bateratuak egitea, eta filosofia horrekin egin da webgune berri hau ere.

Leire: Izaera bateratzailea du. Hainbat eragile batzeko egin dugu, eta guztiak leku berdinean elkartuta edo behintzat abiapuntu zehatz batetik abiatuta, denetara sarbidea izateko gunea da.

Hain zuzen, euskarri digital bat da agenda. Orain arte herritarrek ez zuten hain eskura informazioa?

“Larraun Bizik bultzatzen du dinamika bateratuak egitea”

Zein izan da agenda sortzeko arrazo nagusia?


Rafa: Orain dela 3 edo 4 urte beste saiakera bat egin genuen, antzeko planteamendu batekin, eta ez zuen jarraipen handirik izan. Iaz, konfinamendu garaia aprobetxatuta, egitasmo bat antolatu genuen balorazio bat egiteko, eta horren ganean eta aurrera begira, inkesta bat egin genuen, online. Ustekabez, agenda digitalaren balorazioa nahiko ona izan zen, eta jendeak uste zuenez ideia ona zela, berriro ere martxan jartzea pentsatu genuen. Bide horretan, Ttuturre taldearekin topo egin genuen, webgunea berri nahian zebilena, eta gauza bera Ondare kultur taldearekin. Denon artean erabaki genuen berriro martxan jartzea.

Lehenengo saikeratik bigarrenago honetara izan al da aldaketarik?

Sugoi: Alde batetik,

orain saiatu da eragileak prozesuaren hasieratik inplikatzen; Larraun Biziz gain, Ondare kultur taldea, Ttuturre mendi elkarte eta Altxorren Bila dira sustatzaileak. Aurkezpen bat egin genuen, eta bailarako talde eta eragileak zuzenean gonbidatu genituen. Hasieratik saiatuko gara beren partaidetza edo inplikazioa bultzatzen, haiek ere honen parte sentiarazten.

Gaur egun sustatzaileak horiek izan arren, euskarri ireki bat da?



Edozein eragile edo taldek parte hartu dezake?

Leire: Eragile bakoitzak web orrian sartzeko bere izena eta pasahitza dauzka. Agendan sartuta, argitalpenak egin ditzakete, eta agendan dagoen egutegian agertzen dira. Eragile guztiekin banan-banan hitz egin genuen, eta galdetu genien erreminta hori erabili nahi ote zuten; aukera eman genien behintzat. Baietz esan zutenei sarbide hori izateko aukera eman zitzaion. Nahiko erantzun ona jaso genuen, ia denek eman baitzuten baiezkoa.

Sugoi: Denek ikusten dute ongi, baina zailena da ohiturak aldatzea; hori da gehien kostatzen zaiguna, eta hori da erronka irailetik aurrera batez ere. Jendeak jakinda ekitaldi guztiak hor egongo direla, errazagoa da gehiagok erabiltzea.

Horrela, uste duzue herritarren parte hartzea handiagoa izango dela?

Fran: Hori da ideia: agenda digitala erabilita herritarrek informazioa eskuragarri izatea, eta guretzat, taldeentzat, gure artean hobeto antolatzea, eta egitasmoak egun berean ez egitea. Gauza dexente egiten dira, baina ez gara konturatzen egun berean gauza bat baino gehiago antolatu ditugula, eta dena ezin da. Agendarekin, nolabait, gure antolakuntza hobetu nahi dugu, herritarrek hainbat egitasmotan parte hartzeko aukera izan dezaten.

Leire: Horrela, ez duzu aukeratu egin behar dauden aukeren artean. Azken finean, herritarrek ahalik eta jarduera gehienetara joan ahal izateko modu bat da; antolatzaile bezala jendea zuk antolatutakora joatea nahi baituzu.

Rafa: Horretaz gain, Larraunen egiten diren jarduera guztien ispilu izan

nahi dugu, elkargunea, denok denona ikusteko eta denona ezagutzeko. Askotan bakoitzak bere gunetik ez du ikusteko gainerakoak zertan ari diren, eta errealitate hori ahalik eta osatuen ikusteko, guk nahiz gainerako herritarrek.

Oro har, nolakoa da Larraungo herritarren parte hartzea?

Fran: Ni hona etorri nintzenean alde horretatik ez nintzen oso positiboa, baina egia da hemen urte batzuk eman eta gero, inguruko errealitatea ikusten duzula, konturatzen zara egoera zein den, eta beste ikuspuntu batetik ikusten duzu dena. Nik uste alde horretatik mugimenduak sortzen saiatzen ari garela, elkartzen. Gainera, konfinamenduaren ondorioz, dena gelditu egin da, eta hori kontuan izanda, pozik gaude iaz egindako jarduerekin.

Sugoi: Nik uste aktibitate askoko garai batean gaudela, gauza pila bat egiten dela. Galdera bat komentatu den hainbeste gauza egitea, edo hobe dugun elkarri begiratzea eta eskaintza maila hori dosifikatzea. Alde ona da jende asko dagoela gauzak antolatzen, aktibo, eta eskaintza zabaldua eskaintzen dugu denon artean bailaran, baina alde berean ikusi behar dugu nahikoa etekin ateratzen diogun antolatzen eta egiten den horri. Tresna horrek ere horretarako balio nahi du behintzat: ikusi zenbat gauza egiten diren, hausnartu, eta moduak birplanteatu.

Fran: Bailararen funtzionamendua ere inportantea da. Herri txiki asko daude, eta kontuan izan behar da herri txikietan ere gauzak egin behar direla. Bailararen identitatea indartu behar dugu, konturatu bailara bat garela.

“Antolakuntza hobetu nahi dugu, herritarrek hainbat egitasmotan parte hartzeko aukera izateko”

LARUNBLAI

Ikasturte berria hastear da eta horrekin batera Larunblai egitasmoa martxan jarriko dugu Larraunen. Lehen Hezkuntza 3-6 mailatan dauden umeei parte hartu dezakete.

Larunblai haurren hizkuntza ohituretan eragiteko helburua du, aisialdian oinarrituta eta horretarako bereziki formatutako hezitzaile talde baten laguntzarekin.

Aisialdia ongizatearekin, dibertsioarekin eta jolasarekin lotzen dugu, eta hori dugu oinarri, jolasen eta dinamiken bidez, haur eta gazteen harremanen hizkuntza ohituretan eragin, lagunartean euskara izan dadin komunikazio bide.

Beti ere euskara oinarri eta ardatz, berdintasuna, aniztasuna, ekologismoa eta gainerako baloreak ere lantzen dira urtean zehar egiten diren saioetan.

Taldea hamabostean behin biltzen da, larunbat arratsaldetan, 16:00etatik, 19:00etara, era guztietako ekintzak eta tailerrak egiten, eta urtean behin, talde barnean eta talde ezberdinen arteko sareak sortzeko, kanpaldi bat ere antolatzen dugu.

Izen- ematea: irailaren 15etik 30era izanen da, Euskara Zerbitzuan: 948 504 400 / larbeleareuskaraz@iparmank.eus

Egin dezagun euskararen aldeko apustua gure eguneroko erlazioetarako saretze tresna moduan, taldea sortzeko, hezitzeko eta ongi pasatzeko!



Antzonia
 BASERRIKO GAZTA

948 513 468
 www.antsonea.com
 Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
 LEKUNBERRI - ARAITZ
 LARRAUN
 JALMENTA ETA KONPONTZER

634 551 743
 infoaralar@gmail.com

MALLOAK
 ARTZAI GAZTAK

Granja Martikoa, GANTZA, Nafarroa
 Tlf: 649 472 037 - fax: 692 511 057
 Malloak.com | lar@malloak.com

SAN MIGUEL
 Taberna-Jatetxea
 Arribe
 948 51 31 34

**AURRERA
 TABERNA**
 ARALAR, 15
 948 60 47 24

**TAXI
 SOROA**
 609 168 217
 Bederatzi plaza

**urrutia
 ehea**

etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

OTXOTORENA
 okindegia
 ARRIBE
 ADIII TLF BERRIA:
 948 51 30 32

**Iñigo Garaioa
 MARGOLARIA**

696 658 288
LEKUNBERRI

ce consulting
 empresarial
 ANA RAMOS MARTÍN

GESTORIA
 666 939 332
 aramos@ceconsulting.es

GALBURU
 okindegia - panadería
 Egur-labean egina!

Alde Zaharra 50
 LEKUNBERRI
 948 50 40 42

AGENDA



IRAILA

04 - Printza: Orreaga 778 eta Puro Odio taldeen kontzertuak, 18:00etan.

11 - Printza: etxeko artxiboa zaintzeko tailer praktikoa. 11:30etik 22:00etara.

12 - Andreina Jolin taldearen kontzertua, Tximuutxe bilgune feministak antolatutako *Gure gorputzen jabe* programa feministaren barruan, Azkarateko plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Kontzeju Etxean, 18:30ean.

18 - Printza: bertso desafioa. Bi talde: Idoia Granizo, Ekain Alegre, Jabi Lezaun eta Aitor Irastortza eta, Beñat Astiz, Sarai Robles, Endika Legarra eta Ainara Iregi, 18:00etan.

24 - Euskal preso politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea, Araitx Beteluko Sare eta Etxerategi deituta, Beteluko aparkalekuan, 20:30ean.

25 - Printza. Algara, Accidente eta Mármol taldeen kontzertua, 17:00etan.

MERKATU TXIKIA

SALGAI

► Bi perikito beren kaiolarekin salgai Lekunberrin. Interesa izanez gero, jarri harremanetan: 699897907 (Laura).

INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATZEKO, SARTU WEBGUNEETAN



Andreina Jolin Instagramen:



Printza Youtuben:



Printza Twitterren:



M. Angeles
Urrizalki

iragarkiak,
berriak,
eskelak...

Diario Vasco eta Diario
de Navarrako
Korrespontsala

948513056
699179437

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

BERTAKO
HARAGIA

Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatutako
platerak.
Etxera eramateko
zerbiltua ere
eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

AZKEN MUGA

ERAKUSKETAK

▶ Abuztuaren 21etik irailaren 5era: Eskultura. Formatu txikiko eskulturen erakusketa, 20x20x20 izenekoa. 50 eskultore baino gehiagoren piezak izango dira.

▶ Irailaren 18tik urriaren 2ra: Pintura.

▶ Abuztuaren 28tik aurrera: Land Art. Artista egoiliarrek Zarateko pagadian utziko dituzten proiektuekin forma hartuz joango da.

MUSIKA

▶ Irailak 4: Apalatxe eta Nikotina. Apalatxe hirukoteak Egarriz lana aurkeztuko du. Alatz Lopez Lameiro margotzen izango da musikaz lagunduta. Bitartean, Oreka-T Tolosako slackline taldeak erakustaldia egingo du.

▶ Irailak 25: Et Incarnatus.

ANTZERKIA

▶ Irailak 11: Suak Harrotuz antzerki ibilbidea.

▶ Irailak 17, 18 eta 19: Reunion de Bufones. Ana Pérez Giráldezek interpretazio bufoneskoari buruzko masterclass bat egingo du.

BERTSO SAIOA, HERRI KIROLAK, III. GAZTA TXAPELKETA

▶ Irailak 11:

- **Bertso saioa**: Julio Soto, Maddalen Arza-Illus, Angel Mari Peñagarikano, Andoni Egaña eta Oihana Iguaran.
- **Aizkora erakustaldia**: Iker Vicente Vs Ibai Soroa eta Larrañaga Vs Txomin Amundarain.
- **Aralarko gazta dastaketa eta lehiaketa**.

GAROA SARIA

▶ Irailak 25